

«Buenawista Prollekziions-ek musika eragilea izan nahi du»

Buenawista Prollekziions (BP) musika elkarte ezezaguna da donostiar askorentzat. Elkarte honek Buenabistako eskola zaharrean entsaiatu ohi duten taldeak biltzen ditu bere baitan. Datorren astean, hilaren 15, 16 eta 17an, elkarteak "Hiri musikak" izeneko jardunaldiak antolatuko ditu Egia kultur etxean. Gaztemaniak-ek eta Udalak ere antolatzaile lanetan jardun dute BPrekin batera.

Ainhoa Irazu

Zeintzuk dira ekimenaren helburu nagusiak?

Gure ustez, musika munduan dabilen jende askok ez du musika industriari buruzko oinarritzko informaziorik: Egile eta Editoreen Elkarte Nagusia (EEN) zer den, egile eskubideak zer diren, emanaldi kontratu bat nola egin... Informazio hori guztia musikariei hurbiltzeko asmoz, jardunaldiak antolatu ditugu. Helburua musika industriari buruz informazio zabala eskaintzea da, profesionalen eskutik. Musikari ororen xedea, kontzertuak eman, lanak plazaratu eta taldea sustatzea da. Kalitatezko egitasmoak martxan jartzeko, ordea, informazioa ezinbestekoa da.

Zeintzuk dira jorratuko diren ildoak?

Jardunaldien ardatz nagusiak hiru dira: kontzertuen antolaketa eta managementa, disketxeak eta hedabideak. Esparru horietako 20 bat profesional ariko dira mahainguruetan: EENko Ignacio Casado, Get-Ing-eko Iñigo Argomaniz, Metak eta Oihuka disketxeetako Asier Zulueta eta Ritxi Alvarez, Entzun eta GAZTETXULO aldizkarietako kideak, Herri Irratiko Gregorio Galvez... Ekimena aitzindaria da, eta jarraipena izatea nahi dugu. Bestalde, jardunaldiotan jasotako adierazpen eta hausnarketak liburu batean plazaratu nahi ditugu.

Gasteizko Bideo Jaialdiaren atzera-



Argazkian Nuria Barral eta Amaia Alvarez, BPeke kideak.

begikoarekin hasiko dira jardunaldiak. Hasiera erakargarria benetan...

Hala da. Hego Euskal Herriko hainbat talde esagurantsuk, 1985etik 1995era arte eginiko bideo lanak bildu dira atzerabegirakoan: Eskorbuto, Kortatu, La Polla, Hertzainak, 21 japonasas, Zarama, Ruper

Ordorika, Los Huajalotes, BAP eta abar. Labur esateko, 80 eta 90eko hamarkadetakoa musika arkeologia bildu nahi izan dugu. Emanaldia Liburutegi Nagusiko lokalean izango da, dohainik.

Zer egin behar da jardunaldiotan parte hartzeko?

Gehienera 110 lagun bildu nahi ditugu. Beraz, ezinbestekoa da izena aldeztirik eman eta 10 euro ordaintzea. Diru horren truke, mahainguruetara eta jardunaldi amaierako kontzertura joateko aukera egongo da. Bi talde ariko dira: Sr No eta Astrozombies.

Beste ekimenik ere baduzue eskuar-



«Kalitatezko egitasmoak martxan jartzeko informazioa ezinbestekoa da»

tean: Altzako kultur etxeko kontzertuak eta "5.000 bira" izeneko zerbitzua.

Lehendabizikoarekin formatu txikiko kontzertuak bultzatu nahi ditugu, Donostian ez baita mota horretako kontzertuak egiteko aukera handirik. Bestetik, "5.000 bira" Buenawista Prollekziions elkarteko zein kanpoko taldeentzako zerbitzua da. BP-k kontzertuak lortzeko sustapen eta koordinazio lanak egiten ditu.

Buenabistako egoitzaren etorkizuna kolokan dagoen arren, elkartea bizi-bizirik dagoela dirudi. Horrela al da?

Proiektu asko darabilzkigu buruan, elkarrekin musika eragile izan nahi baitu.

Egitaraua

Ostirala 15

-19.00-21.00. Liburutegi Naguslaren azpialdean: Gasteizko Musika Bideo Jaialdiko bideo klip emanaldia. Besteak beste, talde hauen bideo klipak emango dira: Eskorbuto, Kortatu, La Polla Records, Hertzainak, Ruper Ordorika, Duncan Dhu, 21 Japonesas, Zarama, Bap, Ne-gu Gorriak, Karkaxa..

Larunbata 16

Mahainguruak, Egia kultur etxean.

-10.00-12.00. "Management" a. Hizlariak: Ignacio Casado (EEEN), Sergio Cruzado (Elektronikaldia), Jaun Saiz (Tunk! aretoa), Fernando Etxabarrri (Hontza produkzioak), Manu Narvaez (KTE), Jose Andres Castaño (Gaztemaniak), Xabier Erkizia (Ertz), Iñigo Argomaniz (Get In), Iñigo Herreros (Gipuzkoako Gaztetxeak)

-12.00-14.00. "Disketxeak". Hizlariak: Ignacio Casado (EEEN), Asier Zulueta (Metak), Mario Goñi (Gor), Javi Pez (Novophonic), Xabier Erkizia (Bromo Records), Ritxi Aizpuru (Oihuka).



-16.00-18.00. "Komunikabideak". Hizlariak: Aritz Usandizaga (Entzun), Alberto Irazu (GAZTETXULO), Juanjo Millares (Cadena 100), Gregorio Galvez (Herri Irratia), Aitor Zubizarreta (DVorame), Andres Martorell (El Lobo feroz).


Igandea 17

Kontzertua, Gasteszenan, 20.00etan:

Señor No taldearen "Siempre te diré que no" disko berriaren aurkezpena. Aurretik Astrozombies taldea ariko da.

Izena emateko: 943-352800 (10.00-14.00)

Iehiaketa



• Ados antzerki taldearen "John Wayne-ren laguna" euskarazko antzelerako 12 sarrera (sei lagunentzat bina).
Martxoak 14, Antzoki Zaharrea, 21.00etan

• Joseba Tapiaren "Agur Intxorta Maite" emanaldirako 12 sarrera (sei lagunentzat bina)
Martxoak 15, Loiolako kultur etxean, 20.00etan.



Joan den asteko irabazleak:

"Xalbador bat- bateko mirakulua"

Jesus Sarasola
Joxerra Beloki
Amelia Mangas
Bego Etxebarria



"Coplas por la muerte"

Biki Murua
Nekane Oiartzabal
Iñigo Ruiz
Arantza Ayala
Karmele Mujika
Javi Ruiz Alberro

